



Zapatuetako tailerrak (2025-02)

5-11 urte bitarteko haurrentzat antolatutako tailerrak dira. Haurren adinaren arabera aktibitate ezberdinak antolatzen dira: eskulanak, sukaldaritza, dantza, magia... Tailerrak larunbatetan izango dira, azaroan. Txanda ezberdinak antolatu dira.

Tramitatzailerak: Eibarko Udaleko Kultura saila, Haurreria eta Gazteria.

Hartzaileak: 2020. urtean jaioetakoak eta LH 1.etik 6.ra bitarteko mailako ikasleak. 2020 urtean jaioetakoak eta LH1eko haurrak aitarekin, amarekin edo tutorearekin etorri behar dira tailerretara.

Taldeak, datak, ordutegiak, tokia, formatzaileak:

HH (2020an jaioetakoak). "BIRZIKLAPEN TAILERRA (JOSTAILUAK SORTU)". Azaroak 1, 8 eta 15. Portalean. Gutxienez 4 haur, gehienez 5. Enpresa: ASTIXA. Haurrak gurasoekin batera (aita edo ama).

- 1 txanda: 11:00-12:30.
- 2 txanda: 16:30-18:00.
- 3 txanda: 18:15-19:45.

LH 1. "MACHE PAPER TAILERRA". Azaroak 1, 8 eta 15. Portalean. Gutxienez 4 haur, gehienez 5. Enpresa: ASTIXA. Haurrak gurasoekin batera (aita edo ama).

- 1 txanda: 11:00-12:30.
- 2 txanda: 16:30-18:00.
- 3 txanda: 18:15-19:45.

LH 2. "TXONTXONGILO TAILERRA". Azaroak 1, 8 eta 15. Portalean. Gutxienez 5 haur, gehienez 11. Enpresa: ASTIXA.

- 1 txanda: 16:30-18:00.
- 2 txanda: 18:15-19:45.

LH 3 eta 4. "AKROBATZIAK". Azaroak 1, 8 eta 15. Errebal Plazia, 1. solairuan. Gutxienez 5 haur, gehienez 12. Enpresa: KALETIK.

- 1 txanda: 17:00-18:15.
- 2 txanda: 18:15-19:30.

LH 5 eta 6. "ESPERIMENTU tailerra". Azaroak 1, 8 eta 15. Jazinto Olabeko ludotekan. Gutxienez 5 haur, gehienez 14. Enpresa: ASTIXA.

- 1 txanda: 16:30-18:00.
- 2 txanda: 18:15-19:45.

Ikastaroaren prezioa:

- Eibarren errolatutakoak **10 €**.
- Eibarren errolatuta ez daudenak **20€**.

Ikastaroaren ordainketa: matrikularen zenbatekoa ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Tailerren hizkuntza: euskaraz.

Aurrematrikula: ikastaroan izena emateko aurrematrikula egin beharko da **urriaren 6tik 22ra (biak barne)**. Aurrematrikula egiteko **formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:**



<https://formularioak.eibar.eus/eu/zapatuetakotailerrak2025-02>

Kudeaketa arauak:

Aurrematrikula egiteko epea amaitzerakoan behin-behineko zerrendak lortuko dira eta taldeen kudeaketa burutuko da.

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **2025ko urriaren 23an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **urriaren 23an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik tailer bakoitzean izena eman duten pertsona guztiekin zerrendak egiten dira alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus), egongo da **urriaren 24an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unea sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Aurre-inskripzioen onarpenaren abisua jaso ondoren, behin betiko inskripzioa egin behar da, ondoren adierazten den dokumentazioa tailerra burutuko den lehen egunean aurkeztuz:

- “Zapatuetako Tailerrak” izeneko inprimakia behar bezala beteta eta tailerrera joango den adingabearen aita, amak edo tutoreak sinatuta.
Matrikularen zenbatekoa ordainketa bakar batean kobratuko zaie, erreziboa helbideratuta.
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan.